



PROIEKTU ETA OBRA ARLORAKO LANEN UNITATE ARDURADUN BATEN POSTURAKO DEIALDIAREN OINARRIAK, LEHIAKETA-OPOSIZIO LIBREAREN BITARTEZ

LEHENENGOA: ARAU OROKORRAK

1.1.- Oinarri hauen xedea da lehiaketa-oposizio libreko sistemaren bitartez postu bat betetzeko eta ondoren lan kontratu mugagabea, erreleboko baldintzekin, egiteko arau erregulatzailerak ezartzea, Proiektu eta Obra arloko Lanen unitate arduradun lanpostu baterako AMVISAn hitzarmen kolektiboko 61. Artikuluan xedatutakoarekin betetzeko. Lan baldintzak III. eranskinean jasota daude.

1.2.- Hautaketa prozesua, erretiro partziala duen errelebo kontratuari dagokionez, nulu deklaratu da, eta eraginik gabe geratu da, baldin eta errelebatu behar denak berariaz uko egiten badio idatziz modalitate horri atxikitzeko borondateari.

1.3.- Hautapen prozesuaren xede nagusia da ariketak gaintzen dituen eta puntuaziorik onena lortzen duen hautagaia izatea, errelebo kontratu bat izenpetzeko. Aipatu hautagaiak nahitaez bete beharko ditu errelebo kontraturako indarrean dagoen laneko legedian eta Gizarte Segurantzakoan ezarritako baldintzak:

- Langabezian egon beharko da.
- AMVISAn lan harreman mugagaberik izan gabe aurreko 24 hilabeteetan.

1.4.- Hautapen prozesuaren ondoren, Administrazio Kontseilura eramango da izendapena, proba gaintu eta hautapen prozesu osoan notarik onena atera duen pertsonarekin kontratua formalizatzeko.

1.5.- Hautapen prozesua EPOEn xedatutakoaren arabera garatu da –lehenengo xedapen gehigarria–, zeinean adierazten baita estatuko, erkidegoetako eta tokian tokiko sektore publikoan diharduten erakundeek, EPOEko 2. artikuluan sartuta ez badaude eta berariaz duten arautegian hala definituta badaude, 55. artikuluan jasotako printzipioak aplikatu behar dituztela.

Horrenbestez, EPOEren 55. artikulua printzipio gidari horiek zein diren zehazten du, “Enplegu publikoa lortzea eta zerbitzu harremana hartzea” kapituluaren barruan:

1. Herritar guztiek dute enplegu publikora iristeko eskubidea, betiere, berdintasun, merezimendu, eta gaitasun printzipio konstituzionalak errespetatuta, eta Estatutu honetan eta gainerako antolamendu juridikoan jasotakoaren arabera.

2. Estatutu honetako 2. artikuluan jasotako Herri Administrazioek, erakundeek eta organismoek funtzionarioak eta lan kontratuko langileak hautatzeko erabiltzen dituzten prozeduretan, ongi bermatu behar dituzte bai arestian adierazitako printzipio konstituzionalak baita ondoren ezarritakoak ere.

- a) Deialdiari eta oinarrii buruzko publizitatea.
- b) Gardentasuna.
- c) Hautaketa organoetako kideen profesionaltasuna eta inpartzialtasuna.
- d) Independentzia eta diskrezionalitate teknikoak hautaketa organoen jardunean.
- e) Hautaketa prozesuetako edukiak bete beharreko eginkizunei eta atazei egokitutakoak izatea.
- f) Hautaketa prozesuetan bizkortasunez jokatzeko, objektibotasunari kalterik egin gabe.



BIGARRENA: HAUTAGAIENTZAKO BALDINTZAK

2.1.- Deialdian parte hartu nahi duten pertsonak atal honetan eskatzen diren baldintza guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean. Halaber, hautaketa prozeduran zehar eduki beharko dira horiek guztiak, izendapenaren unera arte.

Oposizio lehiaketa bidezko hautaketarako zerrendetan onartuak izateko, atal honetan jasotako nahitaezko baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.

Nahitaezko baldintzak bete egin beharko dira hautaketa prozedura osoan zehar, harik eta prozesu osoan guztizko puntuaziorik handiena lortzen duen pertsona izendatu, eta bere kontratua formalizatu arte.

1. 18 urte izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.
2. Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.
3. Diziplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen batetik, ez eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ere enplegu edo kargu publikoak izateko edo funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko. Beste estatu bateko nazionalitatea edukiz gero, ez egotea ezgaituta edo antzeko egoeran, ez eta bere estatuan enplegu publikora sartzeari modu berean eragozten duen diziplina zigorren baten edo antzekoren baten mende ere.
4. Jarraian aipatzen diren eta C1 Azpitaldeari dagozkion tituluetako bat baduela edo titulua lortzeko eskubideak ordainduta dituela egiaztatzea:

“Eraikuntza eta obra zibila” familia profesionalen prestakuntza zikloetako goi mailako teknikari titulua edo baliokidea edukitzea, ondoren zehazten denaren arabera:

- Obra Zibileko Proiektuetako goi-mailako prestakuntza-zikloa edo Eraikuntza-obrak Antolatze eta Kontrolatzeko goi-mailako prestakuntza-zikloa (LOE).
- Hirigintza-proiektuak eta topografia-lanak garatzeko goi-mailako prestakuntza-zikloa edo Obra eta planak burutzeko goi-mailako prestakuntza-zikloa. (LOGSE)
- Bigarren mailako lanbide heziketa (FP II) topografian edo bide eta obrak, edo langilezain edo Eraikinak eraikitzea (lan-maisu) atalean.

5. B motako gidabaimena duela egiaztatu behar du.

HIRUGARRENA: ESKAERAK.

3.1.- Hautaketa probetan parte hartu nahi dutenek AMVISAREN webgunean (<https://www.vitoria-gasteiz.org/amvisa>) deskargatu daitekeen eskabidean adierazi beharko dute.

3.2.- Eskabideak eredu normalizatuaren arabera aurkeztuko dira, sinatuta, posta elektronikoz, AMVISAK Giza Baliabide eta Idazkaritza arlorako gaitutako helbide elektronikoaren bidez



rrhhamvisa@vitoria-gasteiz.org, **2025eko apirilaren 14tik maiatzaren 9ko** 14:00ak arte, egunkarietan, ALHAOn eta AMVISAREN webgunean argitaratutako deialdian agertzen den bezala.

3.3.- Posta elektronikoz aurkezteko eskatzen den dokumentazio eta behar bezala sinatutako eskabide normalizatuarekin batera, deialdi honen bigarren atalean eskatzen diren egiaztagiria aurkeztu beharko dira nahitaez, eta honako dokumentu hauen jatorrizkoaren kopia erantsi beharko da:

1. Nortasun Agiri Nazionala (indarrean dagoena).
2. Lanpostua betetzeko eskatzen den titulua.
3. B gidabaimenaren ziurtagiria (indarrean dagoena).

3.4.- Eskabidean, hautagaiak berriaz adierazi beharko dute bigarren atalean jasotako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta berriazko baimena emango dute datu pertsonalak kudeatzeko, bai hautaketa prozesuan, bai sortzen diren lan poltsak kudeatzeko ere. Halaber, eskabidean zerrendatu beharko dira lehiaketaren fasean kontuan hartuko diren merezimenduak.

Soilik oposizio fasearen 1. eta 2. proba gainditu dituzten hautagaiak aurkeztu beharko dute, adierazitako epean eta moduan, eskabidean zehaztutako merezimenduen justifikazioa. Bestalde, beste epe bat irekiko da *curriculum vitae*az gain, eskabidean alegatutako merezimenduak justifikatzeko dokumentazio guztiaren jatorrizkoak eskatuko zaizkie, AMVISAK konpultsatu ditzan eta lehiaketa fasean epaimahaiak baloratzeko. Eskatutako jatorrizko dokumentuak garaiz eta behar bezala ez aurkezteak hautaketa prozesutik baztertzea ekarriko du berehala.

Inola ere ez dira baloratuko eskabide epean eskaera normalizatuan alegatu eta zerrendatu ez diren merezimenduak.

LAUGARRENA: HAUTAGAIK ONARTZEA.

4.1.- Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Epaimahaiko idazkariak onartutakoan eta baztertutakoan behin-behineko zerrenda onartuko du, eta AMVISAREN webgunean argitaratuko da. Alegazioak aurkezteko hiru egun naturaleko epea ezarriko da, egon litezkeen akatsak eta/edo hutsegiteak zuzendu ahal izateko.

4.2.- Erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, eta erreklamazioak ebatzi ondoren, Epaimahaiko idazkariak onartutakoan eta baztertutakoan behin betiko zerrenda onartu eta argitaratuko du, behin betiko baztertzeko arrazoiak berriaz adierazita.

4.3.- Erreklamaziorik agertuko ez balitz, behin behineko zerrenda automatikoki behin betiko bihurtuko litzateke.

BOSGARRENA: KALIFIKAZIO EPAIMAHAIK.

5.1.- Epaimahai Kalifikatzailea oinarri hauen I. Eranskinean agertzen dena izango da, hori guztia hitzarmen kolektiboko 74 C artikuluan xedatutakoarekin bat eginda.

5.2.- Epaimahaiko kideen izenen zerrenda onartutako eta baztertutako hautagaien behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da. Epaimahaiaren jarduna objektibotasun, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun printzipioen mende egongo da, baita profesionaltasunaren eta espezialitatearen eta, hala badagokio, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuaren mende ere.

5.3.- Epaimahaiak beren lanetan aholkulari espezialistak sartzeari erabaki ahal izango dute, hautaketa prozesuko proba guztietarako edo batzuetarako. Aditu horiek beren espezialitateetako aholkularitza eta lankidetzak teknikoak ematera mugatuko dira.



5.4.- Epaimahaiaren jarduera baliouduna izan dadin, ezinbestekoa izango da lehendakaria edo idazkaria –edo haien ordezkioak– eta epaimahaikideak ere bertan egotea. Epaimahaiko kideen gehiengo soilaren aldeko botoarekin hartuko dira erabakiak, eta, berdinketa gertatuz gero, lehendakariaren kalitatezko botoak ebatziko du. Boto eskubidea duten kideen erdiek gehi batek, gutxienez, sartzeko eskatzen den maila akademikoko titulazioa edo hortik gorakoa izan beharko dute.

5.5.- Kalifikazio Epaimahaikideek ez dute parterik hartuko eta horrela jakinaraziko diote Enpresako Lehendakariari, eta hautagaiek errefusatzeko eskubidea erabili ahal izango dute, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24.artikuluetan aurreikusitako egoerak gertatzen badira.

AMVISAn langileek ekidin egin beharko dituzte beren interes pertsonalen eta AMVISAn interesen arteko gatazka ekar dezaketen egoerak. Interes gatazkako egoera erreal, ustezko edo potentzial batean egonez gero, berehala jakinarazi beharko zaio egoera hori Betetze Batzordeari, hark adieraz dezan nola jokatu behar den. (Adibidez: hautagai jakin bat kontratatzeko erabakian bidegabeki eragiten duten interes pertsonalak daudenean). Epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek kode etikoa bete beharko dute hautaketa prozesuaren kudeaketan.

5.6.- Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, eta baimena izango du aurkezten diren oinarrien aplikazioaren eta interpretazioaren gaineko zalantzak argitzeko, eta deialdiaren ordena egokirako hartu beharreko erabakiak hartu ahal izango ditu. Era berean, prozeduraren objektibotasunaren erantzule izango da, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du, baita sektore publikoko erakundeetan sartzeko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direla ere.

SEIGARRENA: PROBAK.

6.1.- Lehiaketa oposizioko ariketa teoriko-praktikoak egun berean egin ahal izango dira, II. Eranskinean xedatutakoaren arabera.

6.2.- Ariketa bakoitza egitera NANarekin azaldu beharko dute.

6.3.- Hautagaiek deialdi bakar batean deituko zaie derrigorrezko proba baztertzailak egiteko. Agertzen ez direnak, edo euren borondatez probak egin gabe joaten direnak, automatikoki baztertuko dira hautaketa prozesutik.

6.4.- Ariketak egiteko lekua eta data AMVISAn webgunean argitaratuko da, gutxienez 48 ordu lehenago.

6.5.- Oposizio faseko derrigorrezko proba baztertzailak gainditzen ez dituztenak ez dira lehiaketa fasera igaroko, eta probak IV. Eranskinean aurreikusitako gaietarako buruzkoak izango dira.

ZAZPIGARRENA.- KALIFIKAZIOAK ARGITARATZEA.

7.1.- Oposizio fasea gainditu dutenen kalifikazioak AMVISAn webgunean argitaratuko dira.

7.2.- Ariketen balorazioa (oposizio fasea, gai-zerrendaren arabera) eta merezimenduen kuantifikazioa (lehiaketa fasea) amaitu ondoren, Epaimahaiak hautagaien behin betiko kalifikazioa eta lehentasun ordena argitaratuko ditu. Horiek, hain zuzen, oposizio fasean eta lehiaketa fasean lortutakoaren baturaren arabera zehaztuko dira.



7.3.- Bi lan egun erreklamazio epea irekiko da. Erreklamazioak egiteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, GG.BB. eta Idazkaritza arloko buruordeak (edo berak delegatzen duenak) behin betiko zerrenda onartuko eta argitaratuko du lehiaketa-oposizioa librearen balorazio guztiarekin.

7.4.- Erreklamaziorik egon ezean, behin-behineko zerrenda automatikoki joko da behin betikotzat.

7.5.- Epaimahaiak ezingo ditu aldarrikatu hutsik daudelako deitutako postuko kideek baino hautagai gehiago, eta muga hori urratzen duten proposamenak erabat deuseztat joko dira. Aukeratutako pertsonak ezingo dute dolozko delituagatik kondenatuta egon, ez eta Administrazio Publiko baten zerbitzuetik bananduta ere, eta ezingo dute funtzio publikoak betetzeko desgaituta edo etenda egon.

7.6.- Hautagaiak GAITUTZAT jo beharko dira azterketa medikoan, Kontseiluaren aurrean izendapen proposamena egin aurretik. Hautagaiek zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izan beharko dute; era berean, gaitasun psikofisiko zehatza eta gaitasunaren bateragarritasuna izan beharko dituzte deitutako lanpostuei dagozkien eginkizunak eta zereginak normaltasunez betetzeko. Hori guztia azterketa medikoaren bidez ebaluatuko da.

7.7.- Oinarri hauetan jasotako hautaketa prozesuko fase guztiak ebaluatu ondoren, Epaimahaiak puntuaziorik onena lortu duten pertsonak izendatzeko proposamena aurkeztuko dio enpresako lehendakariari, hark Administrazio Kontseiluan aurkez dezan.

ZORTZIGARRENA.- IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

8.1.- Epaimahaiak oposizio lehiaketako fase guztietan kalifikaziorik handiena lortu duen hautagaia hautatu eta proposatuko du posturako; betiere, gaitasun medikoa eman ondoren.

Hautaketa prozesu guztian lortutako puntuazioen batura izango da amaierako sailkapeneko lehentasun hurrenkeraren oinarria.

Berdinketak ebazteko, irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenez hurren:

1.- Berdinketa hausteko lehen irizpidea: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21 artikuluan jasotakoa hartuko da aintzat. Gaikuntza-maila bera izanez gero, emakumeei emango zaie lehen-tasuna % 40 baino gutxiago diren kidego, eskala eta kategorietan, salbu eta beste hautagaiarengan bestelako arrazoirik egokitzen bada —sexu bereizkeriarik gabe—, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duenik, hala nola lana lortzeko zailtasun bereziak dituztenen multzoetakoren batekoa izatea. Ondorio horietarako, izangaien artean gaitasun bera dagoela ulertuko da hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan berdinketa gertatzen denean, hau da, kasuan kasuko merezimenduak batu ondoren.

2.- Berdinketa hausteko bigarren irizpidea: bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duen pertsona proposatuko da, eta, hurrenez hurren, hurrengo ariketetakoak, goranzko ordenan.

8.2.- Enpresako Administrazio Kontseiluaren eskumena izango da langilea lanposturako izendapena onartzea, lan kontratua formalizatu aurretik.

BEDERATZIGARRENA.- DOKUMENTUAK AURKEZTEA.

9.1.- Proposatutako hautagaiek, horretarako ezartzen den epearen barruan, eskatzen zaien dokumentazioa aurkeztu beharko dute, dagokien kontratuak sinatzeko behar diren izapideak formalizatzeko.



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.

HAMARGARRENA: LAN BALDINTZAK.

10.1.- Lanpostua lortzen duen pertsonak lan kategoria mugagabea izango du deitutako lanpostuan (2 hilabeteko probaldia), eta AMVISAREN soldata tauletan 16. mailari dagozkion ordainsari baldintzak. Langileak onartu egin beharko du egutegia, lanaldia eta bete beharreko lanpostuari dagozkion lan baldintzak (III. ERANSKINEAN daude jasota); betiere, AMVISAREN hitzarmen kolektiboaren eta Langileen Estatutuaren babesean.

10.2.- Hautaketa prozesu osoa gainditu duten pertsonak zerrenda ordenatu batean antolatuko dira (puntuazio handienetik txikienera). Horrela, AMVISAK, lehenetsun ordenaren arabera, deialdi hau argitaratzen denetik gehienez ere urtebeteko epean sortzen diren lanen arduradun unitaterik gabeko lanpostu hutsak betetzeko aukera izango du. Halaber, hautapen prozesu osoa gainditu duten guztiekin lan poltsa bat sortuko da deitutako posturako.

HAMAIKAGARRENA: DATU PERTSONALAK BABESTEIA.

11.1.- Parte hartzaileek emandako datuak soil-soilik erabiliko dira hautaketa prozesua kudeatzeko eta prozesu horretatik eratorritako aldi baterako lan poltsa kudeatzeko.

11.2.- Idazkaritza eta Giza Baliabideen Arloak izapidetze osoan zehar zainduko du hauetan xedatutakoa betetzen dela: Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan; Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan xedatutakoa.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 4an

44685130V
BATXI
ARANBURU (R:
A01007376)
A01007376)

Firmado digitalmente
por 44685130V BATXI
ARANBURU (R:
A01007376)
Fecha: 2025.04.07
08:34:19 +02'00'

BATXI ARANBURU
GERENTEA



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.

I. ERANSKINA

KALIFIKAZIO EPAIMAHAIA

Lehendakaria:

- Proiektu eta obra Saileko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona (kalitatezko botoa)

Epaimahaikideak:

- Giza Baliabide eta Idazkaritza saileko burua edo hark eskuordetzen duen pertsona
- Beste arlo funtzional bateko langile bat, sartzeko eskatzen den maila akademikoko titulazioa edo goragokoa duena.
- Enpresa Batzordeko kide bat.

Idazkaria:

- Giza Baliabide eta Idazkaritza arloko langile bat, hitzarekin baina botorik gabe.



II. ERANSKINA

OPOSIZIO LEHIAKETA LIBRE BIDEZKO SARBIDEKO SISTEMA

Oposizio lehiaketaren bidez egingo da hautaketa, eta gehienez 75 puntu emango dira.

A- LEHIAKETA FASEA (gehienez ere 25 puntu)

Lehiaketa fasea oposizio fasea amaitu ondoren hasiko da; fase horretara oposizio fasea gainditu duten pertsonak baino ez dira sartuko.

Lehiaketa fasean, eskabideak aurkezteko epean adierazitako merezimenduak baloratuko dira, eta behar bezala egiaztatuko dira, Idazkaritza eta Giza Baliabideen Arloak dokumentuak aurkezteko epea irekitzen duenean.

Ezin izango dira merezimendutzat hartu deialdian parte hartzeko eskatu diren betekizun eta baldintzak. Eskabideak aurkezteko epea amaitu arteko merezimenduak baino ez dira baloratuko, eta, gainera, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan:

Lehiaketa fasean gehienez ere 25 puntu lor daitezke, atal hauen arabera:

1. Azken hamar urteetan deialdiaren antzeko lanpostuak bete izana, lan bizitzaren bidez edo enpresaren ziurtagirien bidez egiaztatuta, deitutako plazaren antzekoak direnak. Gehienez lor daitekeen puntuazioa: **10 puntu**.

1 puntu emango da lortu nahi den lanpostuko eginkizunen pareko edukia daukaten lanpostuetan lanaldiaren %100ean igarotako urte oso bakoitzeko (edo zati proportzionala). Gehienez ere 10 puntu. Unitatea baino zati txikiagoak baztertu egingo dira.

Deitutako lanpostuarekin zerikusia duten lanpostuetan hautagaiek duten esperientzia egiaztatzeko, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte nahitaez:

1. Curriculum vitae.
2. Lan bizitza eguneratua.
3. Lan Kontratuak.
4. Deitutako lanpostuaren antzeko zerbitzuak egin dituzten enpresen ziurtagiria.

Zenbaketa egiteko, alegatutako aldien urteen batura egingo da, Epaimahaiaren irizpidearen arabera.

Urteko zenbaketa egiteko, urteko 360 egun hartuko dira aintzat, eta, hala badagokio, lanaldiaren ehunekoa.

2. Azken hamar urteetan lanpostuaren edukiarekin zuzeneko lotura duen titulazioa eskuratu edota prestakuntza osagarria egin izana. Gehienez lor daitekeen puntuazioa: **4 puntu**.

Prestakuntza edo hobekuntza jarduera eta ikastaro osagarriek zuzeneko lotura eduki beharko dute deitutako lanpostuaren edukiarekin.



Organo eskudunaren, unibertsitateen edo prestakuntza zentro publikoen ziurtagirien bidez egiaztatu beharko dira, non nahitaez adierazi beharko diren hauek: ikastaroari dagozkion eskola orduak, edukia, helburuak, iraupena eta data.

- 30 ordu baino gehiagoko ikastaroak 60 ordura arte: puntu 1 ikastaroko.
- 60 ordu edo gehiagoko ikastaroak 100 ordu arteko ikastaroak: 2 puntu ikastaroko.
- 100 ordu edo gehiagoko ikastaroak: 4 puntu ikastaroko.

Lehiaketa fasean, merezimenduak baloratzeko erreferentziazko data moduan, eskabideak aurkezteko epearen amaiera ezarriko da.

Epaimahaiak, bere diskrezionalitate teknikoaren arabera, eta bete beharreko lanpostuaren eduki eta funtzioen egokitzapena baloratzen duenean, eman dakioken puntuazioa zehaztuko du.

Ez dira baloratuko titulazio akademiko ofiziala lortzeko ikasketen plan baten parte diren ikastaroak, ikasgaiak edo jarduerak.

3. Euskera: Lortu ahal den gehienezko puntuazioa: **11 puntu**.

- Baloratuko da C1 egiaztagiria: gehienez ere 11 puntu.
- Baloratuko da B2 egiaztagiria: gehienez ere 5,50 puntu.
- Baloratuko da B1 egiaztagiria: gehienez ere 3,75 puntu.

Euskararen egiaztapena balio akademikoa duten tituluen bidez egingo da; atal honetan ezin da puntuen batura egin.

B - OPOSIZIO FASEA (gehienez 50 puntu)

Oposizio fasea gehienez ere 50 punturekin baloratuko da, honako ariketa hauen arabera:

1. ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila hautagai guztientzat.

Test edota garapen motako proba bat izango da, gai-zerrendari egokitutako galdera labur edota luzeekin (IV. Eranskina).

Ariketa hau gehienez **10 punturekin** kalifikatuko da, eta gutxienez 5 puntu beharko dira gainditu ahal izateko.

2. ariketa, nahitaezkoa eta baztertzaila hautagai guztientzat.

Proba teoriko, praktikoa edo teoriko-praktikoa bat izango da, gai-zerrendarekin lotura duena, eta idatziz erantzun beharko zaio (IV. Eranskina).

Ariketa hau gehienez **20 punturekin** kalifikatuko da, eta gutxienez 10 puntu beharko dira gainditu, eta hurrengora pasa ahal izateko.



Aguas Municipales
de Vitoria-Gasteiz, S.A.

AMVISA

Vitoria-Gasteizko
Udal Urak, A.B.

3. ariketa. Nahitaezkoa eta baztertuailea hautagai guztientzat.

Idatzizko edo ahozko proba bat edo batzuk (elkarrizketa), proba psikologikoak edota nortasun probak egingo dira, eta horien helburua izango da deitutako lanpostuaren profilerara egokitzeko kompetentziak eta gaitasunak baloratzea.

Ariketa hau gehienez **20 punturekin** kalifikatuko da, eta gutxienez 10 puntu beharko dira gainditu, eta lehiaketa fasera pasa ahal izateko.



III. ERANSKINA

LANPOSTUA, MAILA, SAILKAPENA, BETEKIZUN BEREZIAK ETA EGINKIZUNAK

LANPOSTUA: Lanen Unitate Arduraduna, Proiektu eta Obra Saila

LANSARI MAILA: 16 RGB maila.

SAILKAPENA TALDE PROFESIONALEN ARABERA: C1 azpimultzoa

EGINKIZUNEN DESKRIBAPENA:

- Saneamendu eta hornidura sistemetako obrei lotutako jardueren plangintza, jarraipena eta kontrola. Barneko instalazioak, sareak eta ekipamenduak.
- Barne harremanak, txostenak, baldintza agiriak, aurrekontuak eta proiektuak landuz.
- Lan metodoetan hobekuntzak proposatzea, eta norberaren eta mendeko langileen prestakuntzan laguntzea, halakorik balego.
- Kanpo harremanak, harguneen lizentzien eta saneamendu eta hornidura sistemetako jarduketara eta obren antolamenduari erantzunez.
- Udal ekimeneko edo ekimen pribatuko obrak egiten dituzten enpresen kontrola.
- GIS mantentzeko datuak hartzen eta ekarpen teknikoak egiten laguntzea.
- Obrei dagokienez, arloetako arduradunekin lankidetzan aritzea.
- Lan aginduak jasotzea eta bere ardurapeko langileei ematea, halakorik badago, baita kontraten arduradunei ere.
- Ibilgailuak gidatzea eta eman diotenaren oinarrizko mantentzea egitea.
- Bere kategoria profesionalaren gainerakoak, baina, aldean artean desadostasuna badago, aginduak idatziz emango dira eta berehala beteko dira, eta ondoren hitzarmeneko Batzorde Parekide Mistoaren erabakimenera eramango dira, zeinak gehienez ere hilabete bateko epean ebatziko duen.

Batzordeak erabakitzen badu agindutako zeregina berea baino goragoko edo beheragoko kategoria batekoa dela, lehen kasuan, bere kategoriaren eta bestean denbora horretan lan egindakoaren ordainsariaren arteko aldea ordainduko zaio, eta, bigarrean, eman zaionaren goragoko hurrengo mailari dagokiona.

Eginkizun berriak Unitateko arduradun guztientzat, 2003ko apirilaren 22an onartuak (2003/01/01etik aurrerako ondorioekin)

- Kontratak eta azpikontratak kontrolatzea.
- Helburuak zehaztea.
- Bitartekoak banatzea.
- Bere ardurapeko langileen lana zuzentzea, antolatzea eta banatzea.
- Txostenak egitea.
- Eta gure enpresaren bilakaeraren eta antolaketako aldaketen arabera beharrezkoak diren guztiak.



IV. ERANSKINA

GAI ZERREDA

Araudia

- **1. gaia:** Uraren Esparru Zuzentarua (2000/60/EE Zuzentaraua). 91/271/EE Zuzentaraua, hondakin uren tratamenduari buruzkoa.
- **2. gaia:** Vitoria-Gasteizko udalerrian uraren kudeaketa integrala arautzen duen Ordenantza.
- **3. gaia:** Proiektu eta obra hidraulikoen segurtasuna eta osasuna: lan arriskuen prebentzioa lan hidraulikoetan. Aplikazio praktikoak. 1627/1997 Errege Dekretua, urriaren 24koa, eraikuntza obretarako gutxieneko segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena.

Ur hornidura, hiriko hidraulika

- **4. gaia:** Urak banatzeko sareak. Adukzioa eta banaketa. Material motak. Dimentsionamendua eta diseinua. Sarearen elementuak. Harguneak, emaria neurtzeko elementuak eta kontagailuak.
- **5. gaia:** Edateko ura ponpatzeko estazioak. Tipologia. Bulkatze hodiak. Elementuak. Instalazio osagarriak. Erregulazioa eta kontrola. Fenomeno iragankorren kalkulua eta babes sistemak.
- **6. gaia:** Ur deposituak. Dimentsionamendua. Edukieraren kalkulua. Tipologia. Kokapena eta kota. Balbula gela. Deposituen elementuak. Hodiak eta mekanismoak.
- **7. gaia:** Hornidura sareak ustiatzea, mantentzea eta zaharberritzea. Sektorizazioa. Kontabilizatu gabeko ura. Ur ihesak.

Hondakin uren saneamendua eta hiriko hidrologia

- **8. gaia:** Hiriko eta industriako hondakin urak. Saneamendu sareak: Ezaugarriak. Osaera. Alderdi fisikoak, kimikoak eta biologikoak. Populazioa. Zerbitzuen sektorea. Hondakin uren tipologia. Instalazioetan eta hondakin urak arazteko prozesuan dituen ondorioak. Dimentsionamendua eta kalkulu hidrauliko eta mekanikoak. Sarearen elementuak (erregistro putzuak, hustubideak...).
- **9. gaia:** Euri urak eta azaleko jariatzea. Emarien kalkulua. Infiltrazioa. Hidrologia. Euri uren kolektore baten dimentsionamendua eta trazadura. Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak (DJHS). Tipologia eta diseinua.
- **10. gaia:** Estolderia sareak. Sare unitarioak eta sare banatzaileak. Instalazio osagarriak. Sareen automatizazioa eta kontrola. Ekaitz urak arintzea eta uraren kalitatean duen eragina.
- **11. gaia:** Hondakin urak ponpatzeko estazioak. Tipologia. Diseinua eta dimentsionamendua. Ganberaren bolumena. Bulkatze hodiak. Elementuak. Instalazio osagarriak. Erregulazioa eta kontrola.
- **12. gaia:** Gainezka bideak, ekaitz tangak eta kontrol elementuak. Gainezka bideak eta ekaitz tangak: Ezaugarriak, tipologia, diseinua, erregulazioa eta kontrola.



Eraikuntza: Eroanbideak

- 13. gaia: Zangako hodiak. Sekzio estandarrak. Eskora bidezko hondeaketak. Eskoratzeta. Zutoin hormak. Agortzea. Lurra hobetzea. Gauzatzea eta probak.
- 14. gaia: Zangarik gabeko teknologiak. Hodiak bultzagailuz jarrita. Lurzorutan. Arrokan. Ekipoak eta tipologia. Gauzatzea. Zulaketa gidatua. Hodiak zaharberritzea.

Proiektu eta obren kudeaketa

- 15. gaia: Proiektuen kudeaketa integratua. Faseak: hasiera, plangintza, gauzatzea, kontrola eta itxiera. Bizi zikloa. BIM erredua.
- 16. gaia: Ingurumen inpaktuaren ebaluazioa. Ingurumen Ebaluazioa behar duten plan, programa eta proiektuak eta prozedurak. Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko kompetentziak. Ingurumen azterketa estrategikoa. Proiektuko eta obrako ingurumen dokumentuak.